

Uda baten kronika



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

Udaldian, erretiratuok ez ohi dugu opor goserik, eta patxadaz aztertu ahal ditugu gure inguruko gorabeherak. Hori dela-eta, gai batzuek harriduraz harrapatu naute, eta honako hauek dira.

Espainia. Eurokopak eta Olinpiar Jokoen uda osoa bete dute. Aldez aurretik, esan behar dut kirol-lehiakortasun profesionalez ez dela nire gustukoa, baina harritu nau Espainiarekiko zaletasunitsu eta agintzailea edonon ikustean, baita Euskal Herrian ere. Nire ustez, ezabatzen ari da aspaldian lortu genuen euskal esparru emozionala (batzuetan, identitateari loturik, beste batzuetan, ez). Kultura menperatzailearen keinuak asumitzen ari gara, eta gure herrietan *Potra salvaje* abestia normaltasunez entzun da. Nire harridurak galdetzeran eraman nau ea nik maite dudana komunitate sozial, kultural eta euskalduna desagertzeaz ote dagoen. Horrela bada, harriduraz, baina, batez ere, galduta sentituko nintzateke. Espero dut *moda* bat besterik ez izatea.

Osakidetza. Uda osoan, lagun min bat bisitatu dut erietxean. Ia egunero harriduraz ikusi dut osasun sistemaren

Ezabatzen ari da lortu genuen euskal esparru emozionala. Kultura menperatzailearen keinuak asumitzen ari gara, eta gure herrietan *Potra salvaje* abestia normaltasunez entzun da

gainbehera. Banekien Osakidetza gaizki zegoela, bertan lan egin baitut azken berrogei urteotan, baina eguneroko errealitateak gairitu du nire susmorik txarrena. Antolaketarik eza, mediku aldaketa etengabea, informazio eta komunikazio traketsa eta, azken finean, deshumanizazioa. Argi daukat ez dela inondik ere langileen ardura. Zerbitziburuak, kudeatzaileak eta politikariak izan dira eta izaten ari dira hondamendi honen erantzuleak. Abuztuko egun be-

roenetan, pazienteak 32 gradutan egon dira geletan. Gestore ikusezinak, ostera, oporretan edo haien bulegoetan zeuden eroso, aire girotuarekin. Uda pasa ondoren, osasun publikoaren aldeko borroka berriro piztuko da, baina larrialdiko egoera honetaz gizarte osoak kontziente izan behar du. Osasun publiko duin eta eraginkorrik gabe, ez dago etorkizunik herri honetan.

Solaria. Madrildo enpresa bere inbertsio funts ilunekin heldu da gure herrira, alfonbra gorria jarrita. Administrazio ugariaren laguntzekin aurkeztu dituzte makroproiektu suntsitzaileak, eta horrek herri honen erantzuna piztu du, eta lan sakona eta serioa antolatu da haren aurka. Hori ez da harrizkekoa, historikoki gure herriek izan duten erantzuteko modua izan baita, baina nire harridurarako, Arabako arduradun politikoek ez dute erantzun sendorik eman. Zaila da ulertzen zein den arrazoi. Oporren ondoren, espero dezagun euren iritzia emateko gaitasuna berreskuratzea eta proiektatutako txikizioaren aurrean euren jarrera politikoa era irmo batean adieraztea.

Harriduraz, uda laster amaituko da. ●

FINAL-ZORTZIRENAK

URRETXU

Irailak 14, larunbata, 17:00
 Labeaga antzokia

www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

LASARTE-ORIA

Irailak 15, igandea, 17:00
 Manuel Lekuona kultur etxea

GBT24

GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024

